

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo

loiola


## Ikasleen azoka

**a**rantzazuko Ama ikastolak sekulako feria antolatzen du Santo Tomasetan urtero Loiolan. Aurtengoa, aste beteko aurrerapenez datorkigu, hilaren 14an, larunbatean, egingo baita. Lekua ere beste bat izango da: frontoian egingo da eta ez Eliz kalean gainerako urteetan bezala.

Egitarauaren zati nagusia erakusketa izango da. Goizeko 10.00etatik aurrera, antzinako tresna, barazki eta abereez osatutako postuak jarriko dituzte ikastolako haurrek eta beraiek egindako txorimaloak ere ikusi ahal izango dira.

Goizeko 11.00etan ikasleek berak egindako produktuak jarriko dira salgai: turroia, mazapana, gazta eta abar. 11.30etan gabon kanten jaialdia egingo da guztien partaidetzarekin. Ez da noski txorizoa, ogia eta trikitixarik faltako.

GORKA MUNETA (TFNOA.: 461540)



Aurten hilaren 14an egingo dute Arantzazuko Ama ikastolakoek Santo Tomaseko Azoka.

**Kapildui mendia** igoko dute datorren hilaren 15ean, Ametzagaina Taldeko kideek. Ibilaldi honetan Okinako arroila ere igaroko dute.

**Euriteek** arrasto ugari utzi zuten gure auzoan. Autobidea urez gainezka geratu zen topoaren azpialdean eta ostiralean kotxeak ezin izan zuten bertatik pasa. Auzokideak haserre daude Urumearen ubideraketaren eraginez izan daiteke eta.

## herrera

**Mendi-Zaleak** elkarrekin Mendi Astea antolatu du aste honetarako. Auzotegian 20.00etatik aurrera diapositiba emanaldiak eskainiko dira aste osoan: izotz eskalada, Andesera bidaia eta Santiago bideak ikusi ahal izango dira.

Igandean, hilak 15, txango interesgarria egingo da. Irteera 07.30etan izango da San Luis plazan eta bertatik

Luzuriagara hurbilduko dira Atxuria eta Urdazubiko inguruetan eguna pasatzeko. Ibilaldiaren prezioa 1.300 pezetakoa da eta informazio gehiagorako 39.11.74 telefonora dei dezakezue.

**Gabon ganean,** Auzotegitik 19.00etan Olentzero irtingo da. Auzoko otxotea-

ren eta trikitilarien laguntza izango du menditik bisitatzeko etorriko den Olentzerok.

Aurreko urteetan, Gabon ganean haurrak bakarrik irteten ziren Olentzerorekin kantatzera, aurten, musika kalitatea hobetzeko asmoz, nagusi batzuk tartekatu nahi izan dituzte arduradunek.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

taberna

jantetxea

# NEREA

Eguneroko menua bazkari eta afarietan.  
Enkarguzko afariak

Mamelenas kalea, A C 2 - Tfnoa.: 45 61 94

Okindegia *Eli* Gozotegia

Zabaleta 53 • Tfnoa.: 28 45 66 • DONOSTIA



## San Carlos Borromeo

Kontsumo Kooperatiba

KONFEKZIOA - LENTZERIA - UMETXOAK  
Oiartzun, 7 • Tfnoa.: 28 45 47

*Ballenero's*  
boutique


Baleazaleak 10 • Tfnoa.: 47 20 89 • 20011 Donostia

## intxaurrondo

**Lagun-Artea** konpartsak urtero bezala inauterietan parte hartzeko deialdia luzatu du. Konpartsa hau Donostiako desfilean ateratzen da eta dagoeneko jendea biltzen hasia da entsaioei ekiteko. Interesatuta egonez gero, larunbatero, Zarategi pasealekuko 63. zenbakian elkartzen dira, 17.00etatik 20.00-etara bitartean.

**Galiziako** etxea eraiki zela aspaldi entzun bazen ere, oraindik ez dira eraikitzeko lanak hasi. Mons pasealekuko lokal berrietako bat galiziarren egoitza izango zela komentatu zen auzoan duela hilabete batzuk, baina talde honek ez du albiste hau aditzera eman.

**Otxoki** Pasealekuan eraiki diren etxeetan jendea bizitzen hasia da. Kale honetan eraikitako azken etxeak, Guardia Zibiletik hurbilen dauden familia baka-rrako etxeak dira.



Argazkia: Oier Losantos

**Lizardiko aldapa gero eta arriskitsuagoa da** Lizardiko aldapa norabide bakarrekoa izatea aspaldian eskatu zuten bertako bizilagunek. Aldapa oso gogorra eta estua da eta sarritan bi auto ozta-ozta igaro daitezke batera. Oraingoan hala ere, eskailera eta barandak ditugu hizpide. Egoera tamalgarrin daude eta helduentzat bereziki erosoagoa da aldapa bertatik ibiltzea, eskaileratik ibiltzea baino. Bestalde, Lizardi bidera ematen duen kale estuetan ispiluak jartzea ere eskatu da.

## Pilotan jokatu nahi?

Urtero bezala, Neguko Pilota Txapelketari ekingo diote IPE taldekoek. Aurtengo 6. edizioa izango da eta urtarrilaren 11ean hasteko asmoa dute. Iñaki Aldabalderen omenez egiten den txapelketa hau apirilaren amaiera arte luzatuko da eta partiduak larunbata eta igandetan jokatuko dira.

Esku pilotan bikoteka jokatzen txapelketa honetan hiru kategoriatan izaten dira. Aurten pilotarien adinak aldatu egin dituzte. Honela, jubeniletan 79-80 urteetan jaiotakoek jokatuko dute; sub-21 kategorian 77-80 urtetakoek eta senior mailan, 1976an edo lehenago sortutako pilotariek. Bestalde, aur-

ten igande arratsaldetan jokatuko dira partiduak.

Txapelketan parte hartu nahi duzenok, abenduaren 18ra arte duzue izena emateko epea zabalik. Horretarako deitu 472669 telefonora lan orduetan, edo bestela 281738 zenbakira.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)



*Casa de Labores*

1930ean sortua

Jostura eta tapizeriak

Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak

Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia

# MARIO taberna

**KAZUELATXOAK ETA EGUNEROKO MENUA**

Zubiaurre pasealekua 56 • INTXAURRONDO • Tfnoa.: 27.75.55

Gabonetarako behar dituzun opari guztiak hemen aurkituko dituzu



Iparragirre 16 • GROS • Tfnoa.: 27 04 22